



“Lehiaketa handietan tranpa egiten da, zalantzarik ez”

Ilaski Serrano | Pantailan, eskumakoa

Berbatia dela aitortu ostean, berbetan hasi da gurekin... barkatu, geugaz.

UNAI BREA

Argazkia: Dani Blanco

Zorionak! Lortu duzu lehenengo aldiz euskarazko saio bat Bizkaian gehiago ikustea Gipuzkoan baino. Kike Amonarrirek hala esan digu behintzat. Ez egin kasu handirik iruzurti horri. Baina tira, datu hori egia izan daiteke, bai.

Bizkaieraz egitea zer da orduan, audientzia erakartzeko bitarteko hutsa, edo militantzia kontua?

Nire izaera kontua. Saiatzen naiz sarrerak, agurrak, keinu batzuk... bizkaieraz egiten, bertan bizkaitarrak badaude. Eurak gustura, neu ere gustura, eta badago hurbilketa bat Bizkaia aldera, orain arte egon ez dena.

Nik uste dut Arantzan, Nafarroan, bizi zarenez gero, aprobe txatu behar zenukeela “bertze”, “bederen” eta halakoak esateko. Bizkaiera baino askoz dotoreago, inondik inora.

1997an sartu nintzen ETBn; “zuekaz egongo gara” esan eta zuzentzen zidaten: “Ez egin bizkaieraz!”. Batuaz ari nintzen eta! *Zuekaz* hori zen problema. Eta orain alderantziz da, bizkaiera *plus* bat da, lehen *minus* bat zen.

Baina zelan egin liteke ETBn lan batuaz jakin barik?

Nork diotsu ez dakidana? Irentsi duzu zeuk ere mito hori. Bada, egiten dut batuaz, oso ondo gainera. Zenbat bider ikusi duzu zuk *Mihiluz*? Niri eman datuak, frogak.

Hara, Ilaski kontraerasoan. Esadazu: zer sentitzen da Kike Amonarriren laguntzaile izanda?

Minigonan askoz hobeto ematen dut hark baino. Egin genuen proba: test psikologikoan nahiko berdinduta amaitu genuen, test intelektualean ere bai, baina nik askoz izter politagoak ditut Kikek baino, orduan... Azafata izatea neuri tokatu zait.

Eta besoekin hainbeste keinu egitea telebistan ikasitako teknika da, edo etxetik eroandakoa?

Neure teknika propioa da, baina asko daukat kenduta! Autokritika saioa izan zen hori. Inork ez zidan esan, neuk ikusi nuen bideoa eta esan nuen: gutxituko dut apur bat.

Ez zenituzkete zuzenean kanporatu behar *lhimintzioka* probaren izena “*lhimintxioka*” ahoskatzen dutenak?

Eduki dut pentsamendu hori denbora batean, baina orain ezetz esango dizut, nahikoa da eurak etortzea eta han jartzea, atea zabalik denontzat.

Azken probaren zailtasuna edo erraztasuna erabakitzeko zenbateraino eragiten du krisiak, aurrekontuak alegia?

Horretan legalak gara, ez dago krisirik momentuz. Ez da tranparik egiten lehiaketa honetan, eta horrek harritu egiten nau, telebista izanda...

Zer, barkatu?

Tranpa egiten da telebistan, tranpa egiten da komunikabideetan, tranpa egingo duzu zuk erantzun hauek transkribitzean. Ni askoz argiagoa naiz elkarrizketa honetan agertuko naizena baino.

Baliteke, baina... lehiaketetan tranpa? Ze, zuzenean behintzat, guztion dirua da banatzen dena.

ETBn, esango dizut ezetz, baina lehiaketa handietan zalantzarik ez.

Zuek ez, besteek bai noski...

Erraza da eta! Baina guk ez dugu egiten, zintzoak gara. Ni gaiztoagoa izango nintzateke ahal banu, baina azafata hutsa naizenez... ■